

V. LEHIAKETA “Poesia liburuen tituluekin”

Liburuaren Eguna izanen da apirilak 23 dituelarik, eta hori ospatzeko, Iruñeko Hizkuntza Eskolak *Poesia liburuen tituluekin* izeneko literatura lehiaketa antolatu du, hau da, liburu batzuen tituluak erabiliz zentzua duen esaldi bat sortzea da helburua.

OINARRIAK

1. Parte-hartzaileak

Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean 2023/24ko ikasturtean matrikula ofiziala duten ikasleak aurkezten ahal dira lehiaketara.

2. Lanen betekizunak

- Parte-hartzaile bakoitzak bi lan aurkezten ahal ditu gehienez.

- Testuek zehaztutako hauek bete beharko dituzte:

- Aukeratutako liburuak benetakoak izanen dira, ez da onartuko Internetetik lortutako irudirik.
- Irakurketa errazteko, liburuen antolamendua horizontala izanen da nahitaez, bata bestearen gainean.
- Egileak gutxienez hiru titulu erabiliko ditu, eta gehienez zazpi. Edozein motatako liburuak erabili daitezke, poesia, eleberria, saiakera, bidaia-gidak, etab.
- Liburuaren tituluek irakurgarriak izan behar dute, ezin inola ere dira manipulatu, eta titulu osoak agertuko dira.
- Lanak Nafarroan ofizialak diren hizkuntzetan, hots, euskaraz eta gaztelaniaz aurkezten ahal dira, baita IHEOeko edozein hizkuntza ofizialetan ere.

- Lanak originalak eta argitaragabeak izanen dira.

- Baldintza hauek betetzen ez dituzten lanak ez dira lehiaketarako onartuko.

3. Lanak aurkeztea eta identifikatzea

- Lanak posta elektronikoz aurkeztu beharko dira. Email: eoipvdir@educacion.navarra.es

- Mezu elektronikoak “*Poesia Liburuaren tituluekin* lehiaketarako” izenburua izanen du. Ez da haren egiletzari buruzko aipamenik egingo mezulariaren gorputzean,

- Emailari hiru fitxategi erantsiko zaizkio:

- ✓ Lehena, argazki bat testuarekin, liburuen tituluak erabiliz.
- ✓ Bigarrena, word dokumentu batean, egilearen arabera tituluek osatzen duten testua, interpretazio okerrak saihesteko. Testu horri puntuazioa gehitzen ahal zaio (puntuak, harridurak, letra larriak, etab.), zentzua argiago uzteko. Euskaraz edo gaztelaniaz ez diren kasuetan, izenburuek osatzen duten esaldiaren itzulpena ere aurkeztu behar da.
- ✓ Hirugarrenean, egilearen datu pertsonalak adieraziko dira: izen-deiturak,

telefono-zenbakia eta ikasten ari den hizkuntza eta maila.

4. Lanak hartzeko epea

2024ko apirilaren 23an hasi eta maiatzaren 3ko 23:59an amaituko da. Epea ezingo da luzatu.

5. Irabazleak hautatzea

-Epaimahaia Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko departamentuetako irakasleek osatuko dute.

-Sariak eman gabe gera daitezke, behar besteko kalitaterik ez badute edo oinarriekin bat ez badatoz. Era berean, epaimahaiak pertsonen ohorearen edo intimitatearen aurkako lanak, bai eta mezu arrazistak dituztenak eta indarkeriaren apologia egiten dutenak ere ezabatuko ditu.

-Emitza pertsonalki jakinaraziko zaie irabazleei, eta sare sozialetan adieraziko da ondoren.

6. Sariak

-Sari bat emango da Eskolako hizkuntza ofizial bakoitzeko. Saritutako lana finalista bihurtuko da automatikoki. Dena den, sari hauek eman gabe gera daitezke behar besteko kalitaterik ez badute edo aurkeztutako obren kopurua kontuan hartuta.

-Guztira sei sari emango dira: borts finalistei eta Lehen Saria erabateko irabazleari, idazlanak edozein hizkuntzatan idatzita daudela ere.

-Finalista bakoitzak 35 euroko txartela jasoko du, material didaktikoa erosteko.

-Erabateko irabazlea, finalista guztien artetik izendatuak, 100 euroko txartela jasoko du material didaktikoa erosteko.

-Epaimahaiak maiatzaren 14a baino lehen jakinaraziko du bere erabakia, eta apelaezina izango da.

7. Jabetza eta argitalpena

Aurkezkatutako lanaren jabetza egilearena izango da. Hala ere, IHEOk eskubidea du saritutako obrak Konpainian aldizkarian argitaratzeko eta hedatzeko, hala nola prentsan eta sare sozialetan.

8. Oharrak

Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar. Oinarri hauek betetzen ez dituen edozein lan kanporatzen ahalko da.